


ISEI - IVEI

Rs5. ESKOLA UZTE GOIZTIARRA





ISEI-IVEI

IRAKAS-SISTEMA EBALUATU
ETA IKERTZEKO ERAKUNDEA
INSTITUTO VASCO DE EVALUACIÓN
E INVESTIGACIÓN EDUCATIVA

EUSKO JAURLARITZA

HEZKUNTZA, UNIBERTSITATE
ETA IKERKETA SAILA



GOBIERNO VASCO

DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN,
UNIVERSIDADES E INVESTIGACIÓN

Edizioa: 2011ko abendua

© ISEI-IVEI argiraratu

ISEI-IVEI ARGITARATUA

Irakas-sistema Ebaluatu eta Ikertzeko Erakundea

Asturias 9, 3.a - 48015 Bilbo

Tel.: 94 476 06 04 - Fax: 94 476 37 84

info@isei-ivei.net - www.isei-ivei.net

KOORDINATZAILEA

Paz Martínez

AHOLKULARITZA TEKNIKOA

Eduardo Ubieta



Rs5

Eskola uzte goiztiarra

HEZKUNTZAKO
ADIERAZLEEN
EUSKAL SISTEMA



ESKOLA UZTEAREN EHUNEKOA IKASKETA MAILARIK ALTUENA DBHKO TITULUA (CINE 2) DUEN ETA ONDORENGO HEZKUNTZARIK EDO PRESTAKUNTZARIK JASOTZEN EZ DUEN 18-24 URTE BITARTEKO BIZTANLERIAREN ARTEAN.

Europar Batasunaren helburua 2020. urterako: Gehienez Bigarren Hezkuntzako lehen etapa (CINE 2) bukatu duten eta ondorengo hezkuntzarik edo prestakuntzarik jasotzen ez duten 18-24 urte bitarteko biztanleen ehunekoa % 10 baino handiagoa ez izatea.

Eskola uzte goiztiarraren tasa betidanik izan da oinarrizko kezka bat Europako hezkuntza-politikan, prestakuntza ezagutzan oinarritutako hazkunde ekonomikoaren eredu bat lortzeko ezinbesteko elementua delako, eredu horrekin garapen jasangarria eta gizarte kohesioa bermatzen direlarik.

Eskola uzte goiztiarraren tasa 2010. urterako % 10 baino txikiagoa izatea Europako Kontseiluak 2002an europar hezkuntza eta prestakuntza sistemen aurrerapena kontrolatzeko finkatu zituen erreferentzia-puntuetako bat izan da.

Eskola uzte goiztiarraren murrizpena 2010. urterako neurtzek, batzordeak honako helburu hau finkatu zuen: ikasketa edo prestakuntza mailarik altuena Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza (CINE 2) duten eta inkestaren aurreko lau asteetan inolako hezkuntzarik edo prestakuntzarik jaso ez dutela dioten 18-24 urte bitarteko gazteen ehunekoa % 10 baino txikiagoa izatea. Helburua, azken finean, adin tarte horretako gazteek euren prestakuntza –arautua (derrigorrezkoaren ondorengoa) edo hezkuntza sistemaz kanpoko beste edozein motatako prestakuntza– jarraitzea sustatzea da, eta , aldi berean, biztanleriaren parte bat ezagutzaren gizartetik at geratzea eta gizartetik baztertuta geratzeko arriskua ekiditea.

Azken urteotan adierazle honek zenbait aldaketa izan ditu bere definizioan eta metodologian. Gaur egun EUROSTATEk erabiltzen duen teknologia erabiltzen da eta datu-bilketa (EPA) Biztanleria Aktiboaren Inkestaren bidez gauzatzen da. Metodologia horrek kontuan hartzen ditu 4 hiruhilabeteetako batez bestekoa eta inkestaren aurreko 4 asteetan ikasketa arauturik edo ez arauturik egiten ez duen biztanleria. Adierazle honekin batera aurkezten diren segida guztiak EPA-2005 metodologiarekin birkalkulatu dira.

Adierazle honen bilakaerak europar herrialdeetan batez beste beheranzko joera duen arren, kontutan hartu behar da finkatutako helburua benetan handizalea zela, 2010eko datua % 14,1ekoa baitzen, urte hartan lortu nahi zen % 10etik oso urrun. Horregatik erabaki du batzordeak 2020rako lehengo helburua mantentzea, hots, eskola uztearen tasa % 10 baino handiagoa ez izatea.

2010ean Europako 27 herrialdeetatik zortzi herrialdek bakarrik bete dute finkatutako helburua. Oro har, datuek gorabeherak ia herrialde guztietan izaten dituzten arren, azken bost urteotako bilakaera aztertzean, eskola uzte goiztiarraren ehunekoa herrialde guztietan, seitan izan ezik, jaitsi egin dela ikusten da. 2005-2010 aldian ehunekoaren beherakadarik handiena izan duen herrialdea Portugal (% 10,1) izan da, gero Bulgaria (% 6,5), Luxenburgoko (% 6,2) eta Zipre (% 5,6). Hala eta guztiz ere, Luxenburgok (% 7,1) helburua betetzea lortu du, baina gainontzeko



hiru herrialdeek ez dute lortu, eta Portugal (% 28,7) helburutik oraindik oso urrun dago.

Euskadin 2000-2010 aldian eskola uzte goiztiarraren ehunekoa % 14,7tik % 12,6ra jaitsi da. Hamarraldi horretan zehar, zenbait gorabehera txiki izan badira ere, eskola uztearen ehunekoa % 14ren inguruan jarri da. Baliorik handienak 2003an (% 15,8) eta 2009an (% 16,0) izan dira, eta jaitsierarik handiena (3,4 puntu) 2009tik 2010era gertatu da. Euskadi 2010ean Europar Batasuneko 27 herrialdeetako batez bestekotik 1,5 puntu beherago zegoen, eta 2020rako helburutik 2,6 puntu beherago.

Espainiako batez besteko orokorra 2010ean % 28,4 izan da, Europar Batasuneko 27 herrialdeetako altuenetan hirugarrena, Portugal (% 28,7) eta Maltarekin (% 36,9) batera. Beraz, Europako helburua betetzeko egin behar den ahalegina handia da, 2020rako helburua % 10ean mantentzen baita.

2005-2010 aldian, 17 autonomia erkidegoetatik –gehi Ceuta eta Melilla hiriak– 14tan eskola uzte goiztiarraren ehunekoa jaitsi egin da, eta gainontzeko lau erkidegoetan igo egin da. Ehunekoa gehien jaitsi deneko erkidegoen artean Extremadura (5,3 puntu) eta Katalunia (4,1 puntu) daude; eskola uzte goiztiarraren ehunekoaren igoerarik handienak Asturiasen (2,2 puntu) eta Kantabrian (2,1 puntu) gertatu dira.

2010. urtean 18-24 urte bitarteko biztanleen artean eskola uzte goiztiarraren ehunekorik txikienak Euskadin (% 12,6), Nafarroan (% 16,8) eta Asturiasen eta Madrilen (% 22,3) izan dira. Eskola uztearen ehunekorik altuenak izan dituzten erkidegoak Ceuta eta Melilla (% 40,7), Balear Uharteak (% 36,7) eta Murtzia (% 35,5) izan dira.

Sexuaren aldagaiak ere oso datu argigarriak eskaintzen ditu. 2010ean ikasketak goizegi uzten dituzten gizonezkoen ehunekoa emakumezkoena baino handiagoa izan da herrialde guztietan, Bulgarian eta Eslovakian izan ezik. Espainia, Malta eta Portugalen kasuetan gizonezkoen ehunekoa emakumezkoena baino 10 puntu handiagoa izan da.

Euskadiren kasuan 2010ean eskola uzte goiztiarraren tasan sexuaren araberako aldea (1,4 puntu) 2000. urtetik izan den alderik txikiena izan da; alde horren arrazoia honako hau da: tasa emakumezkoen artean 2,4 puntu igo da hamarraldi horretan, baina gizonezkoen artean 6,5 puntu jaitsi da. Autonomia erkidegoetan sexuaren araberako aldea Errioxako 0,4 puntutik (mutilen ehunekoa neskena baino txikiagoa) Gaztela-Mantxako 19,7 puntura (mutilen ehunekoa neskena baino handiagoa) doa.

Kontuan izan behar da adierazle hau Biztanleria Aktiboaren Inkestako (EPA) datuetatik sortzen dela, eta Euskadirako eta adin tarte horretarako (18-24 urte) inkestaren lagina txikia dela. Ondorioz, datuen aldakortasuna hein handi batean laginketa-errorearen eragina izan daiteke, zenbait grafikotan azaltzen den bezala. Aldakortasuna argi ikus daiteke, adibidez, 2009ko datutik (% 16,0) 2010eko datura (% 12,6).

Euskal Estatistika Erakundeak (EUSTAT) , Eurostaten metodologia bera erabiliz, adierazle honi buruzko datu propioak eskaintzen ditu, eta zenbait kasutan ez datoz bat Eurostatek eta INEK eskainitako datuekin. Eustatek, Biztanleriaren Jardueraren arabera Sailkatzeko inkestaren bidez (BJA), datuak askoz laginketa handiago batean oinarritzen ditu, eta, beraz,



Rs5

Eskola uzte goiztiarra

HEZKUNTZAKO
ADIERAZLEEN
EUSKAL SISTEMA



laginketa errorea askoz txikiagoa da. Hartara, zentzuzkoa dirudi adierazle honetan datu horiek ere eskaintzea, baina atal berezi batean (13. orrialdetik aurrera).

Hala eta guztiz ere, autonomia erkidegoen arteko konparazioetarako eta Europar Batasuneko herrialdeekiko konparazioetarako INEren datuak erabili dira.




Rs5.1 taula eta grafikoa:

Ikasketak bukatu gabe utzi dituen 18-24 urte bitarteko biztanleriaren ehunekoaren bilakaera sexuaren arabera Euskadiko Autonomia Erkidegoan¹.

Urtea	Guztira	Gizonezkoak	Emakumezkoak	Aldea ¹
2000	14,7	19,8	9,5	10,3
2001	14,7	20,1	9,0	11,1
2002	13,2	17,0	9,3	7,7
2003	15,8	20,3	10,9	9,4
2004	13,4	18,2	8,4	9,8
2005	14,5	18,7	9,9	8,8
2006	14,5	19,5	9,4	10,1
2007	14,3	18,5	10,0	8,5
2008	14,7	18,1	11,2	6,9
2009	16,0	20,9	11,2	9,7
2010	12,6	13,3	11,9	1,4

¹Balio positiboek ikasketak goizegi uzten dituzten gizonezkoen ehunekoa emakumezkoena baino handiagoa dela adierazten dute.



Iturria: Instituto Nacional de Estadística (INE). EPA-2005 metodologia (Biztanleria Aktiboaren Inkesta).

¹ Datuak arretaz interpretatu behar dira, laginketa txikietatik ateratakoek laginketa-errore handia izan dezakete.



Rs5.2 taula:

Ikasketak bukatu gabe utzi dituen 18-24 urte bitarteko biztanleriaren ehunekoaren bilakaera autonomia erkidegoetan.

	2000	2001	2002	2003	2004	2005	2006	2007	2008	2009	2010
Espainia	29,1	29,7	30,7	31,6	32,0	30,8	30,5	31,0	31,9	31,2	28,4
Andaluzia	35,5	35,3	36,8	38,2	39,2	37,9	38,1	37,3	38,5	37,5	34,7
Aragoi	21,9	20,8	27,0	24,0	23,5	23,0	26,0	26,0	25,6	25,1	23,7
Asturias	21,8	19,8	22,4	28,6	26,3	20,1	23,2	22,5	19,7	21,1	22,3
Balear Uharteak	42,0	40,7	40,3	41,4	42,5	39,3	36,5	43,1	43,2	40,8	36,7
Ceuta eta Melilla	37,5	32,2	36,1	40,8	41,3	44,4	47,0	49,2	42,1	36,0	40,7
Errioxa	26,1	27,0	27,3	34,7	35,0	29,0	27,1	30,3	37,2	32,7	28,1
Euskadi	14,7	14,7	13,2	15,8	13,4	14,5	14,5	14,3	14,7	16,0	12,6
Extremadura	41,0	37,9	38,2	36,9	39,7	37,0	35,9	34,3	33,6	34,5	31,7
Galizia	29,2	27,5	26,9	25,0	24,3	23,0	24,9	23,9	24,1	26,0	23,1
Gaztela eta Leon	21,6	22,9	22,8	24,4	23,3	25,7	23,8	23,5	26,0	27,0	23,3
Gaztela-Mantxa	35,8	36,4	36,5	36,2	37,0	36,5	38,6	37,2	38,1	34,4	33,2
Kanariak	34,1	36,9	33,0	32,7	33,5	30,5	34,5	36,3	34,1	31,3	30,4
Kantabria	22,8	24,2	26,2	29,1	26,3	21,8	23,6	25,3	22,8	23,9	23,9
Katalunia	29,1	30,1	31,2	33,9	34,0	33,1	28,6	31,6	33,2	31,9	29,0
Madril (Erkidegoa)	19,6	20,8	23,7	22,6	25,4	26,0	26,0	25,8	26,9	26,3	22,3
Murtzia	39,2	37,7	38,7	42,0	42,8	39,4	38,7	39,6	41,0	37,3	35,5
Nafarroa (F. Erkidegoa)	16,4	17,9	21,6	20,8	21,2	18,4	13,5	17,1	19,2	19,8	16,8
Valentziako E.	32,7	35,8	36,0	36,0	35,6	32,1	31,5	31,6	33,1	32,8	29,2


Datuak arretaz interpretatu behar dira, laginketa txikitatik ateratakoek laginketa-errore handia izan dezakete.

Iturria: Instituto Nacional de Estadística (INE). EPA-2005 metodologia. Datuak 4 hiruhilabeteetako urteko batez bestekoa dira.



Rs5.2 grafikoa:

Ikasketak bukatu gabe utzi dituen 18-24 urte bitarteko biztanleriaren ehunekoaren bilakaera autonomia erkidegoetan. 2005. eta 2010. urteak.



Eskola uztearen ehuneko txikienetik handienera ordenatua, "2010. urtea" irizpidearen arabera".

Iturria: Instituto Nacional de Estadística (INE). EPA-2005 metodologia. Datuak 4 hiruhilabeteetako urteko batez bestekoa dira.




Rs5.3 taula eta grafikoa:

Eskola uzte goiztiarraren ehunekoa sexuaren arabera autonomia erkidegoetan. 2010. urtea.

	Bi sexuak	Gizonezkoak	Emakumezkoak	Aldea ¹
Espainia	28,4	33,5	23,1	10,4
Andaluzia	34,7	40,3	28,7	11,6
Aragoi	23,7	27,1	20,3	6,8
Asturias	22,3	26,6	17,9	8,7
Balear Uharteak	36,7	42,6	30,7	11,9
Ceuta eta Melilla	40,7	45,9	35,6	10,3
Errioxa	28,1	27,7	28,4	-0,7
Euskadi	12,6	13,3	11,9	1,4
Extremadura	31,7	38,5	24,3	14,2
Galizia	23,1	27,8	18,3	9,5
Gaztela eta Leon	23,3	27,3	19,2	8,1
Gaztela-Mantxa	33,2	42,7	23,0	19,7
Kanariak	30,4	37,0	23,5	13,5
Kantabria	23,9	30,1	17,4	12,7
Katalunia	29,0	34,6	23,2	11,4
Madril (Erkidegoa)	22,3	26,3	18,4	7,9
Murtzia	35,5	40,0	30,6	9,4
Nafarroa (F. Erkidegoa)	16,8	23,4	10,1	13,3
Valentziako Erkidegoa	29,2	33,3	25,0	8,3

¹Balio positiboek ikasketak goizegi uzten dituzten gizonezkoen ehunekoa emakumezkoena baino handiagoa dela adierazten dute. Datuak arretaz interpretatu behar dira, laginketa txikietatik ateratakoek laginketa-errore handia izan dezakete.



Eskola uztearen ehuneko txikienetik handienara ordenatua, "Sexu biak" irizpidearen arabera".

Iturria: Instituto Nacional de Estadística (INE). EPA-2005 metodologia. Datuak 4 hiruhilabeteetako urteko batez bestekoa dira.



Rs5.4 taula:

Eskola uzte goiztiarraren ehunekoaren bilakaera Europar Batasunean.

	2000	2001	2002	2003	2004	2005	2006	2007	2008	2009	2010
EB (27 herrialde)	17,6 (e)	17,2 (e)	17,0	16,6 (b)	16,1	15,8	15,5	15,1	14,9	14,4	14,1
Alemania	14,6	12,3	12,5	12,8 (i)	12,1	13,5 (b)	13,6	12,5	11,8	11,1	11,9
Austria	10,2	10,2	9,5	9,0 (b)	9,5 (i)	9,1	9,8	10,7	10,1	8,7	8,3
Belgika	13,8	13,8	14,1	14,3	13,1 (b)	12,9	12,6	12,1	12,0	11,1	11,9
Bulgaria	:	20,5	20,7	21,9	21,4	20,4	17,3	14,9	14,8	14,7	13,9
Danimarka	11,7	9,2	9,0	10,4 (b)	8,8	8,7	9,1	12,5 (b)	11,5	10,6	10,7
Erresuma Batua	18,2	17,8	17,6	12,1 (b)	12,1 (i)	11,6	11,3	16,6 (b)	17,0	15,7	14,9
Errumania	22,9	21,7	23,0	22,5	22,4 (b)	19,6	17,9	17,3	15,9	16,6	18,4
Eslovakiar Errepublika	:	:	6,7	5,3 (b)	6,8	6,3	6,6	6,5	6,0	4,9	4,7
Eslovenia	:	6,4	5,1	4,6 (u)	4,3 (u)	4,9 (u)	5,6	4,1 (u)	5,1 (u)	5,3 (u)	5,0 (u)
Espainia	29,1	29,7	30,7	31,6	32,0	30,8 (b)	30,5	31,0	31,9	31,2	28,4
Estonia	15,1	14,4	13,2	12,9	13,1	13,4	13,5	14,4	14,0	13,9	11,6
Euskadi*	14,7	14,7	13,2	15,8	13,4	14,5	14,5	14,3	14,7	16,0	12,6
Finlandia	9,0 (i)	9,5 (i)	9,7 (i)	10,1 (i)	10,0 (i)	10,3 (i)	9,7 (i)	9,1 (i)	9,8 (i)	9,9	10,3 (i)
Frantzia	13,3	13,5	13,4	13,2 (b)	12,8	12,2	12,4	12,6	11,8	12,4	12,8
Grezia	18,2	17,1	16,5	16,0 (b)	14,7	13,6	15,5	14,6	14,8	14,5	13,7
Herbehereak	15,4	15,1	15,3	14,3 (b)	14,1	13,5	12,6	11,7	11,4	10,9	10,1 (b)
Hungaria	13,9	13,1	12,2	12,0 (b)	12,6	12,5	12,6	11,4	11,7	11,2	10,5
Irlanda	:	:	14,6	13,1 (b)	13,1	12,5	12,1	11,6	11,3	11,3	10,5
Italia	25,1	25,9	24,2	23,0	22,3	22,0	20,6	19,7	19,7	19,2	18,8
Letonia	:	:	16,9	18,0	14,7	14,4	14,8	15,1	15,5	13,9	13,3
Lituania	16,5	14,9	13,4 (b)	11,4	10,5 (b)	8,1	8,2	7,4	7,4	8,7	8,1
Luxenburgo	16,8	18,1	17,0	12,3 (b)	12,7	13,3	14,0	12,5	13,4	7,7 (p)	7,1 (u)
Malta	54,2	54,4	53,2	49,9	42,1 (b)	38,9	39,9	38,3	39,0	36,8 (p)	36,9 (p)
Polonia	:	7,4	7,2	6,0	5,6 (b)	5,3	5,4	5,0	5,0	5,3	5,4
Portugal	43,6 (p)	44,2 (p)	45,0 (p)	41,2 (p)	39,4 (p)	38,8 (p)	39,1 (p)	36,9 (p)	35,4 (p)	31,2	28,7
Suedia	7,3	10,2 (b)	10,0	9,2 (b)	9,2	10,8 (b)	12,4 (p)	11,4 (p)	11,1 (p)	10,7 (p)	9,7 (p)
Txekiar Errepublika	:	:	5,7	6,5 (b)	6,3	6,2	5,1	5,2	5,6	5,4	4,9
Zipre	18,5	17,9	15,9	17,3 (b)	20,6	18,2 (b)	14,9	12,5	13,7	11,7	12,6

(:) Datua falta da. (e) Balio zenbatetsia. (b) Segidaren haustura. (i) Kontzeptu eta definizio egokituak gauzatzearen ondorioz, aurreko urteekiko konparagarritasun urria dago. (p) Behin-behineko datua. (u) Konparagarritasun urriko datua.


*Euskadirako iturria: INE.

Iturria: EUROSTAT. (LFS – Europar Batasuneko adierazle estrukturalak).



Rs5.4 grafikoa:

Eskola uzte goiztiarraren ehunekoaren bilakaera Europar Batasunean. 2005. eta 2010. urteak.



Eskola uztearen ehuneko txikienetik handienara ordenatua, "2010. urtea" irizpidearen arabera.

Iturria: EUROSTAT. (LFS – Europar Batasuneko adierazle estrukturalak).




Rs5.5 taula eta grafikoa:

Eskola uzte goiztiarraren ehuneko sexuaren arabera Europar Batasunean. 2010. urtea.

	Bi sexuak	Gizonezkoak	Emakumezkoak	Aldea ¹
EB (27 herrialde)	14,1	16,0	12,2	3,8
Alemania	11,9	12,7	11,0	1,7
Austria	8,3	8,4	8,2	0,2
Belgika	11,9	13,8	10,0	3,8
Bulgaria	13,9	13,2	14,5	-1,3
Zipre	12,6	16,2	9,8	6,4
Danimarka	10,7	13,6	7,5	6,1
Eslovakiar Errepublika	4,7	4,6	4,9	-0,3
Eslovenia	5,0 (u)	6,4 (u)	3,3 (u)	3,1
Espainia	28,4	33,5	23,1	10,4
Estonia	11,6	15,2 (u)	: (u)	
Euskadi*	12,6	13,3	11,9	1,4
Finlandia	10,3 (i)	11,6 (i)	9,0 (i)	2,6
Frantzia	12,8	15,4	10,3	5,1
Grezia	13,7	16,5	10,8	5,7
Herbehereak	10,1 (b)	12,2 (b)	7,9 (b)	4,3
Hungaria	10,5	11,5	9,5	2,0
Irlanda	10,5	12,6	8,4	4,2
Italia	18,8	22,0	15,4	6,6
Letonia	13,3	17,2	9,4	7,8
Lituania	8,1	9,9	6,2 (u)	3,7
Luxemburgo	7,1 (u)	8,0 (u)	6,0 (u)	2,0
Malta	36,9 (p)	41,0 (p)	32,4 (p)	8,6
Polonia	5,4	7,2	3,5	3,7
Portugal	28,7	32,7	24,6	8,1
Erresuma Batua	14,9	15,8	14,0	1,8
Txekiar Errepublika	4,9	4,9	4,8	0,1
Errumania	18,4	18,6	18,2	0,4
Suedia	9,7 (p)	10,9 (p)	8,5 (p)	2,4

(.) Datua falta da. (b) Segidaren haustura. (i) Kontzeptu eta definizio egokituak gauzatzearen ondorioz, aurreko urteetiko konparagarritasun urria dago. (p) Behin-behineko datua. (u) Konparagarritasun urriko datua. *Euskadira iturria: INE.



Eskola uztearen ehuneko handienetik txikienera ordenatua, "Sexu biak" irizpidearen arabera. Estonia ez da ageri, daturik ez dagoelako.

Iturria: EUROSTAT. (LFS – Europar Batasuneko adierazle estrukturalak).



Rs5

Eskola uzte goiztiarra

HEZKUNTZAKO
ADIERAZLEEN
EUSKAL SISTEMA



Ikasketak bukatu gabe utzi dituen 18-24 urte bitarteko biztanleriaren ehunekoaren bilakaera sexuaren arabera Euskadiko Autonomia Erkidegoan.

(EUSTAT) Euskal Estatistika Erakundeak emandako datuak, Eurostat metodologiarekin (BJA) Biztanleriaren Jardueraren arabera Sailkatzeko inkestatik ateratakoak. Inkesta hiru hilabetez behin gauzatzen da Euskadiko Autonomia Erkidegoan eta datuak hiruhilabeteetako datuetatik ateratako urteko batez bestekoa dira.




Rs5.6 taula eta grafikoa:

Ikasketak bukatu gabe utzi dituen 18-24 urte bitarteko biztanleriaren ehunekoaren bilakaera sexuaren arabera Euskadiko Autonomia Erkidegoan.

Urtea	Bi sexuak	Gizonezkoak	Emakumezkoak	Aldea ¹
2000	14,3	18,1	10,3	7,8
2001	12,4	15,9	8,7	7,2
2002	13,4	16,7	9,9	6,8
2003	14,7	19,3	9,9	9,4
2004	14,2	18,9	9,1	9,8
2005	11,5	13,8	9,0	4,8
2006	12,0	15,0	8,5	6,5
2007	12,4	15,2	9,3	5,9
2008	14,1	16,8	11,1	5,7
2009	12,6	16,6	8,5	8,1
2010	10,8	12,7	9,0	3,7

¹Balio positiboek ikasketak goizegi uzten dituzten gizonezkoen ehunekoa emakumezkoena baino handiagoa dela adierazten dute.



Iturria: Euskal Estatistika Erakundea (EUSTAT). EUROSTAT metodologia, Biztanleriaren Jardueraren arabera Sailkatzeko inkestako datuak (BJA).